



**BEÑAT IRASUEGI
IBARRA**
KOOPERATIBISTA

Euskalgintzaren olatu kooperatiboarekin jarraitu

Kooperatibismo eraldatzailearen garapenean gabiltzan eragileek bost olatu kooperatiboren bitartez kontaktzen dugu euskal kooperatibismoaren garapena, bere historiari sakonera, eta izaerari aniztasuna emateko asmoarekin. Bide horretan, pasa den mendeko 60-70. hamarkadetako euskal iraultza kulturak ekarri zuen autoeraketa proiektuen loraldian kokatzen dugu hirugarren olatu kooperatiboa.

Olatu hark gaur egun arte iritsi den uzta oparoa eman bazuen ere, proiektu batzuk erdibidean geratu ziren edo benetan garatu gabe, hamabost urtez Arantzazuko bide bazterrean egon ziren Oteizaren harritzko apostoluak bezala. Zer gertatu zen bidean?

70eko hamarkadak autoeraketarako aukera asko eman zituen, dena egin behararen pultsioak dinamika herritar indartsuak garatu baitzituen. Baina instituzionalizazioaren garaia ere izan zen, autoeratutako tresnek forma egonkorak lortzeko beharra ere izan baitzuten. Behar hori hiru modutan garatu zen: publiko-administratiboan, merkatuan eta ekonomia sozialean. 78 erregimenaren paradigmaren eremu publikoaren garapena handia izan zen. Euskalgintzan ere, batez ere hasieran, hainbat proiektu autoeratutak izaera publi-

koa hartu zutelarik, beti ere autonomien estatuaren markoan. Denboran aurrera ildo hori lausotzen joan zen, bereziki merkantilizazioaren paradigma gailendu zelako, eta momentu batetik aurrera, helburu eta ikuspegi publikoa edo komunitarioa zuten proiektuek merkatu kapitalistaren markoan homologatzera jo zuten. Non gelditu da ekonomia sozialaren ildo orduan?

Proiektu askok, eredu estatal autonomikoa ala merkantila dikotomiatik ihesi, hasieratik edo ondoren hartu dituzten formula kooperatiboetan aurrera egitea erabaki dute, ekonomia sozialak eskaintzen duen autonomia komunitarioaren bidea landuz. Euskalgintzaren oinarrietan, zer eta nola galderei erantzutea garrantzitsua izan da: euskaraz bizitzeko baliabide eta egiturak sortu dira, bai, baina horiek modu herritar eta demokratikoan kudeatzeari garrantzia eman zaio, elkartasuna oinarri hartuta.

Datozen garai nahasi eta apokaliptikoetan, garrantzitsua izango da euskalgintzak egiten duen hautua: homologazioa ala eraldaketa; sumisioa ala burujabetza. Baditugu etorkizunak euskaraz marrazten dituzten proiektuak, Aiaraldea Ekintzen Faktoria adibidez. Kooperatibismoa eta lan burujabea tresna garrantzitsuak izan-go dira eraldaketaren bidean. ●

Ezinduak



**ITXARO BORDA
IDAZLEA**

Iparraldean ere azken hauteskundeak bi itzulietan, hiru bozkatzaileetatik bi etxean gelditu da. Koronabirusaren ondorioa litekeela erran dute batzuek eta besteek, bozka bidezko joko demokratikoaren aldeko gaitzeko desengainua nabaritzen dela azpimarratzen dute. Demokrazia, gaurkoan, gure kantu zahar batek zioenez, *zerri-askara botatzekoa* bihurtu da, karrikak sutan uzten dituen gobernuaren kontrako ekintza zuzenaren faboretan: bozkatzera joateak, egia, ez du adrenalinarene neurria biziki harrotzen.

Macronen errua da. 2017az geroztik baztertu eta gutxietsi ditu bitarteko botereak, hala nola alderdiak eta sindikatuak. Jendeak ez du gehiago biderik aurkitzen bere herritar-lekuaren finkatzeko. Zirku eta ogirik aski ez baldin badu, halatan, asaldatzen da, oldartzen, eskuin-muturretara plegatzen, salbazioa handik etorriko bailitzaion...

Abstentzioa ulertzen saiatzen gara. Baina urrunegi joan gabe, nagikeria baten zorian altxatzen dela erants genezake, balio gabeko eginkizunetan igandea galtzeko beldurrean eta aburu politikoz janzten den oroz bateko axolagabetasun larri batean. ●